



GOBERNANTZA PUBLIKO ETA
AUTOGOBERNUA SAILA
Araubide Juridikoaren
Sailburuordetza
*Lege Garapen eta Arau Kontrolerako
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA
PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Régimen Jurídico
*Dirección de Desarrollo Legislativo y
Control Normativo*

LEGEZKOTASUN TXOSTENA, BARNE MINISTERIOAREN ETA HELDUEN ALFABETATZE ETA BERREUSKALDUNTZERAKO ERAKUNDEAREN (HABE) ARTEKO KUDEAKETA- GOMENDIORAKO HITZARMENARI BURUZKOA.

30/2021 LT - LGAKZ

I. AURREKARIAK

Goian aipatutako hitzarmen proiektuari buruzko Legezketasun Txostena eskatzen zaio Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari.

Eskaria ondoren aipatzen diren agiriek osatzen dute:

- HABEko Aholkularitza Juridikoaren teknikariaren txosten juridikoa.
- HABEren zuzendari nagusiaren memoria.
- HABEko kudeaketa zerbitzuburuaren memoria ekonomikoa.
- Hitzarmen- zirriborroa.

Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 55.artikuluari ezarritakoarekin betetzeko Gobernu Kontseiluaren akordio proposamena gehitu beharko zaio espedienteari. Akordio proposamen hori aipatutako Dekretuaren 62. artikuluan ezarritakoa kontuan izan beharko du, hain zuzen ere, sinatzeko ahalmena duten agintaritzak.

Txosten hau, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 14.1 a) artikuluan atxikitako eginkizunetan sustraitzen da, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoan.

II. HITZARMENAREN AURREKARIAK ETA XEDEA

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 14. artikulua, aurreikusitakoaren arabera, botere publikoen betebeharren artean, Administrazio Publikoari atxikitako langileak pixkanaka euskalduntzeko neurriak hartzea jasotzen da.

Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoaren 6.2.d) artikulua, arabera, "Aipatutako irakaskuntzak eta ikastaroak emateko, unibertsitatearen, Botere Judizialaren, Fiskaltzaren, Indar Armaturen eta irakaskuntza-helburu horietarako berariaz interesgarriak diren beste erakunde, zentro edo establezimendu batzuen lankidetzaren instituzionala sustatuko da."

"Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea" (HABE) zuzenbide publikoko erakunde bat da, berezko nortasun juridikoa duena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioetik independentea, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikia. Erakunde hori sortu eta euskaltegiak arautzen dituen azaroaren 25eko 29/1983 Legearen xedatutakoaren arabera, erakunde horren eginkizunen artean dago Euskal Autonomia Erkidegoan helduen artean bai euskararen irakaskuntza bai euskalduntzea eta alfabetatzea bultzatzea eta sustatzea, dagokion gobernu-organismoak hizkuntza-politikaren arloan emandako jarraibideen arabera.

Halaber, HABEK Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari proposatu behar dio euskaltegietan helduen euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak gainditzeko gaitasun-ziurtagiriak edo diplomak ematea (29/1983 Legearen 2.g art.) eta autoikaskuntza-sistemen homologazioa (uztailaren 22ko 179/2003 Dekretuaren 6. art., helduentzako euskararen irakaskuntza burutzen duten euskaltegien eta beste zentro homologatuen jardura eta horien finantzazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aldetik arautzen duena).

Horretarako, HABEK estrategikoki garrantzitsuenak diren sektoreen hizkuntza-prestakuntza bermatzen du, helduentzako euskara-irakaskuntzaren eskaria ikusita. Horien artean daude, Administrazio Orokorreko, Foru Administrazioako eta Tokiko Administrazioako langileez eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore espezifikoetako langileez gain, Estatuko Administrazioako langileak.

Beraz, hitzarmenaren xedea hauxe da, Barne Ministerioak HABEren esku uzten dituen jarduerak koordinatzeko esparrua ezartzea eta arautzea, erakunde autonomo hori arduratu dadin Euskal Autonomia Erkidegoan lan egiten duten Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetako langileei emango zaizkien euskara-ikastaroak antolatzeaz, bai eta ikastaro horiek kontratatzeaz eta ikasleen jarraipena egiteaz.

III. LEGEZKOTASUN AZTERKETA

HABEko Aholkularitza Juridikoak azterketa zehatza egin du hainbat kontutan: hitzarmenaren aurrekariak, izaera juridikoa; HABEren eskumena; izapidetza, edukia; edota 40/2015 Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea betetzearen azterketa.

Izaera juridikoari dagokionez, kudeaketa-gomendioa azaroaren 8ko Sektore publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik at gelditzen da, eta hitzarmenaren bitartez formalizatu beharra dago.

Kudeaketa-gomendiorako hitzarmen horrek urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusten den kudeaketa-gomendioaren tresnan du bere oinarri juridikoa.

Aurreko txostenak esandakoarekin errepikapenik ez izateko, hitzarmenaren edukiari lotuta dauden hiru ohar besterik ez ditugu garatuko txosten honetan.

Lehenik, hitzarmena urtero luzatzeko aukerari dagokionez, gogoratu behar da hitzarmenek lau urteko epe muga dutela (49 h. artikulua). Lau urteko epe hori **bukatu baino lehen**, beste lau urtez luzatu ahal izango da indarraldi hori bi aldeen adostasuna badago (49 h 2º).

Hitzarmenaren hamargarren klausulak ez du aipatzen bi aldeen arteko adostasuna eta luzapena automatikoa ahalbidetzen du. Beraz, klasula hori aldatu beharko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak adierazitakoa errespetatzeko.

Bigarrenik, kontutan izanik datu-trukeak izango duen garrantzia, Datu Pertsonalen Babesari buruzko klausula zehatza gehitu eta sistematikoki gai horretan indarrean dagoen legediak jartzen dituen betebeharren aipamena egitea beharrezkoa da.

Azkenik, hitzarmenaren bostgarren klausulari buruz (HABEren betebeharrak) azken ohar bat egingo dugu. Euskategiek proposatutako irakasleek Gobernuaren Ordezkaritzaren baimena izan beharko dute. Ez da adierazten edo zehazten zein kasutan ukatuko den baimen hori. Klausula hori horrela onartuz gero, arazoak ekar ditzake; horregatik beharrezkoa litzateke ukapen horren arrazoiak zehaztea edo jarraipen-batzordearen eginkizunen artean (zortzigarren klausulan) kontuan izatea.

Hau da nire txostena, zuenbidean hobe oinarritutako beste edozeinen menpe gelditzen dena.